



OT-002/12-PTP-TOLOSALDEA

NIK, TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Gasteizen maiatzaren 22an egindako 2/2013 osoko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuela, bertaratutakoen aho batez eta, beraz, kideen gehiengo osoarekin:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

I. Tolosako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren hasierako onarpena gauzatu aurretik, Planaren berri ematea, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 13.5 artikuluan adierazitakoaren arabera. Honela jakinarazi da:

1. INGURUNE FISIKOA

- Lurraldearen Zatiko Planean proposatutako ingurune fisikoaren antolamendu-ereduari aldeko balioespena ematea; izan ere, eredu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan ezarritako erabakiekin bat dator.

2. BIZITEGIETARAKO ETA EKONOMIA JARDUERETARAKO KOKALEKUEN SISTEMA.

2.a. BIZITEGIETARAKO KOKALEKUEN LURRALDE EREDUA

- Bizitegietarako kokalekuei dagokionez, Lurraldearen Zatiko Planean proposatutako lurralde-eredua hiri-sistemarekin eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan definitutako ereduarekin bat datorrela uste dugunez, proposatutako ereduari aldeko balioespena eman diogu; izan ere, arestian aipatutako Planean lehentasuna ematen zaie hiri-sareen pilaketa arintzeko eta birsortzeko jardunei garapen berrien aurretik, eta lurzoru berrien okupazioa minimizatu egiten da.

- Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartu aurretik, ezinbestekoa da Plan horretan ezarritako bizitegietarako lurzorua kuantifikatzeko irizpideak gaur egun izapidetze-fasean dagoen Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aldaketa ez-funtsezkoaren dokumentuan ezartzen diren erabakietara egokitzea.

2.b. EKONOMIA JARDUERETARA ZUZENDUTAKO LURZORUAREN LURRALDE EREDUA.

- Ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoruen antolamenduari eta lurzoru horietarako aurreikusitako eskaintzari dagokionez Lurraldearen Zatiko Planean proposatutako lurralde-ereduaren aldeko irizpena eman da; izan ere, proposamen hori bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan definitutako ereduarekin eta Tolosako Eremu Funtzionalari dagokionez Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planean bildutako proposamenekin.

3. HARREMAN ETA ZERBITZU SISTEMA.

- Espedientean biltzen diren proposamenei aldeko balioespena eman zaie espediente horretan proposatutako estrategiaei dagokionez; nolana ere, proposamenaren behin



betiko txostena gai horretan eskumena duten sektorearen arabera Sailek egin ditzaketen sektore-balioespenen arabera izango da.

- Hondakinen azpiegituri dagokienez, Lurraldearen Zatik Planaren eredu (araudiaren 29. artikulua) Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituri buruzko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duen 24/2009 Foru Dekretua (uztailaren 21ekoa) aipatu beharko da.

4. AISIALDIRAKO EREMU NATURALAK ETA EKIPAMENDUAK.

- Aisialdirako Eremu Naturalei eta Ekipamenduei buruz dokumentuan azaltzen diren estrategiei dagokienez espedientearen proposatutako Antolamendu Ereduari aldeko balioespena eman zaio; nolana ere, proposamenaren behin betiko txostena gai horretan eskumena duten Sailek egin ditzaketen sektore-balioespenen arabera izango da.

II. Txosten hau Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea Plana hasiera batean onartu eta aipatutako Legearen 13. artikuluen 6. eta 7. ataletan, hurrenez hurren, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aurreikusitako dauden izapideak bete ahal izateko; hori guztia 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera.

II.- Kultura-ondarearen arloan

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, 2013ko martxoaren 7ko txostenean, aldeko irizpena eman zuen, baina honako xedapen lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

1.1. Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean lege babestuta dauden ondasunetarako edo ondasun horiek babesteko irekitako espedientearen duten ondasunetarako hainbat hiri-lotura ezarri dira babestutako ondasunak mugatzeari eta babes-araubideari buruz.

Hirigintza-plangintzan eragin handia duenez higiezin bat Kultura Ondasun deklaratuak, gure ustez ezinbestekoa da Tolosako (Tolosalde) Funtzio Eremuaren Lurraldearen Zatik Planaren erabakien artean azaltzea Lurraldearen Zatik Planaren garapenaren planteamenduak ezarri behar duela, Kultura Ondasun Kalifikatuei dagokienez, dagokion muga eta babes-araubidea errespetatu behar direla (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailearen 3ko 7/1990 Legearen 12.2 eta 28.1 artikulua). Inbentariatuak diren ondasunen kasuan (7/1990 Legearen 20. artikulua) euren osotasuna bermatu beharko da suntsitu, galdu edo hondatu ez daitezela. Eta, azkenik, Balizko Arkeologia Eremuen kasuan, arkeologia-proiektuek 7/1990 Legearen 49. artikuluen arabera dagokien ebazpenetan ezarritakoa bete beharko dute.

1.2. Dokumentuan Kultura Ondarea plangintzaren ginetik dagoen baldintzat bat hartu behar da, idatzi beharreko garapen-planteamenduak eta kultura-ondasun babestuak izatea bateragarri eginez; betiere Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen eta horren arau-garapenen arabera ez ezik, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan Kultura Ondareari buruz, orokorrean, azaltzen diren aginduen arabera ere.

III.- Garraioaren azpiegiturari dagokionez:

Honako erabaki lotesle hauek ezarri zituen Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2013ko apirilaren 2an emandako txostenean:

- Trenen aurreratze- eta aparkaleku-postuaren eta hutsaltze-postuaren kokapena zuzentzea.



- Euskal Y-a azaltzen den dokumentu guztietan biltzea Trenbidearen LAParen Antolamendu Planoetan aipatzen den erreserba-banda. Erreserba-banda hori Trenbide Erabilerako Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikatu behar da; eta, beraz, beste hirigintza-kalifikaziotik kanpo geratu behar du; nolana ere, azpiegitura eraiki ostean, jabari publikoarekin lotuta ez dauden lurrek beste kalifikazio bat izan dezakete, betiere tren-trafikoaren segurtasunarekin bateragarria izango dena. Era berean, aintzat hartutako hirigintza- edo eraikuntza-jardun orok EAEko Trenbide Sareari buruzko Lurraldearen Arloko Plana eta Trenbide Sektoreari buruzko Legea eta horren Arautegia hartu beharko ditu kontuan.
- Euskal Y-a azaltzen den dokumentu guztietan "Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Linearen (tartea: Zizurkil-Urnieta) Informazio Azterlan Osagarriari" dagokien behin betiko ibilbidea biltzea. Aipatutako azterlan 2009ko ekainaren 26an onartu zen behin betiko, Trenbide Sarearen Erregelamenduaren (abenduen 30eko 2387/04 Errege Dekretua) 10. artikularen (Informazio-azterlan izapidetzea eta onartzea) 11. atalean ezartzen denaren arabera: "Hirigintza-plangintzako tresnen berrikuspenak direla-eta, edo aurretik indarrean dagoena ez den beste tresna mota bat onartzen bada, trenbide-linea berriak edo linea berri horien ibilbideak aurretik onartutako informazio-azterlanetan txertatuko dira.

IV.- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean

Honako erabaki lotesle hauek ezarri zituen Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2013ko apirilaren 2an emandako txostenean:

- **EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana**

Agirietan EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Plana zuzen izendatzea.

- **Abeltzaintzako ustiategi berrien inguruko araudiaren aplikazioa**

Abeltzaintzako ustiategi berriek indarrean dagoen araudia bete beharko dute. Gaur egun, honako hau da:

- *Irailaren 22ko 515/2009 Dekretua, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.*
- *Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko legean jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena, jardueraren lizentzia behar ez duten ustiategietarako. Dekretu hori 515/2009 Dekretuak, irailaren 22koak, aldatu du (hirugarren xedapen gehigarria).*

Lehendik badiren abeltzaintzako ustiategiei dagokien araudia aplikatzea:

- *Lehendik zeuden abeltzaintzako ustiategiek, jardueraren lizentzia lortu nahi badute, 10 edo 15 urteko epea dute, kokatuta dauden biztanlegunearen tipologiaren arabera, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko, eta ez zaizkie aplikatuko distantzien eta kokalekuaren inguruko arauak, aipatutako dekretuan ezartzen den bezala.*

V.- Uraren arloan:

Uraren Euskal Agentziak, 2013ko maiatzaren 13an emandako txostenean, aldeko irizpena eman zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:



1. Uholdea izateko arrisku potentzialari dagokionez:

- a) Asteasu ibaiaren eskuinaldea Zizurkilen; 12. HIEarako (Fraisoro Errota) aurreikusitako garapenak gauzatu ahal izango dira aurreikusitako bideratzea egiteko obrak amaitu ostean, uholdearen muga 100 urteko birgertatzealdia izanik, aldi hori eraikuntzen eta urbanizazioaren ertzek izan behar duten gutxieneko atzerapenetik ateratzen da.
- b) Villabona-Anoeta ibarra, Oria ibaiaren ezkeraldea Villabonan (ikus III. eranskina); 5. HIEan (Sacem) eta 18. HIEan (Akolodi) aurreikusitako garapenak gara daitezke egungo uholde-egoeran, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo kokatzen den gehieneko eremuan. Hori egikaritzeko, eta aurretik baimena lortzeko, ibaiertza errespetatzen duen proiektua aurkeztu beharko da; proiektu horrekin, bestalde, lortuko da ibaiertzera iristen diren eta gaur egun dauden betetzeak kentzea eta kota 500 urteko birgertatzealdira igotzea har litekeen eremuan, betiere lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo.
- c) Landa-lurzoruko oinarritzko egoeran dauden lurretan, ibarraren gainerako eremuetan, aurreikusitako garapenak uholdea gertatzeko arrisku handiko eremuetatik kanpo kokatu beharko dira (100 urteko birgertatzealdia), eta, betiere, hartu beharreko neurriek bermatzen badute babesa izango dela uren mailen aurka 500 urteko birgertatzealdiko uholdeetan.
- d) Adunako ibarra (ikus II. eranskina) eta Zelai errekaen bi aldeak Ibarra; lurzoru urbanizatuko oinarritzko egoeran dagoen lurzoruan baimena eman ahal izango da, salbuespenez, lehentasunezko fluxu-eremuan eraikinak eraikitzeke alde batean edo bi aldeetan finkatutako eraikuntzaren mehelinak dituzten orubeetan eta aurretik zegoen lurzoru urbanizatuaren barruan erabat txertatuta dauden orube isolatuetan. Landa-lurzoruko oinarritzko egoeran dauden lurretan, aurreikusitako garapenak uholdea gertatzeko arrisku handiko eremuetatik kanpo kokatu beharko dira, jardunak gauzatu aurretik zegoen uholde-egoeran, eta betiere hartu beharreko neurriek bermatzen badute babesa izango dela uren mailen aurka 500 urteko birgertatzealdiko uholdeetan.
- e) Oria ibaiaren ezkeraldea eta Araxes ibaiaren bi aldeak Tolosan; aurreikusitako garapenak garatu ahal izango dira urak har ditzakeen eremuetan kokatu behar diren eraikinak egokitzeko neurriak kontuan hartuta.
- f) Oria ibaiaren eskuinaldea Iruran; 9. arearen garapena (Zabalgune) honako honek baldintzatuko du: gaur egun dagoen lubetaren kotarainoko betelana egin beharko da, lubeta hori hausteko dagoen arriskua eta eremuko ura husteko dauden arazoak saihesteko.

2. Lurraldearen Zatiko Plan honen ondorioz sortzen den antolamendu berritik ondorioztatzen diren eta Jabari Publiko Hidraulikoa eraginpean hartzen duten edo horien zortasun- edo polizia-guneetan kokatzen diren edo uholde-arriskua duten jardunek URA Uraren Euskal Agentziaren aurretiko administrazio-baimena beharko dute. Baimen hori Kantauriko Ekialdeko Arroen Bulegoan izapidetu beharko da.

3. Saneamendua kudeatzen duen Erakundea ados dagoela egiaztatzen duen txostena aurkeztu beharko da; txosten horretan ziurtatu beharko da, alde batetik, tokiko saneamendu-sareak egokiak direla aurreikusitako garapenetatik eratorritako karga berriak biltzeko eta tratatzeko, eta, bestetik, baliabideak egokiak direla garapen berrien hornidurarako.

2.- Etxebizitzaren arloan:

Etxebizitza Sailburuordetzak, 2013ko maiatzaren 21ean emandako txostenean, aldeko irizpena eman zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:



- Lurraldearen Zatiko Planean ez dira aipatuko etorkizuneko izapidetze-faseetan Etxebizitza Sailburuordetzak bere gain hartu behar dituen aurrekontu-aurreikuspenak.

VII. Espedienteari honako txosten hauek gehitzea; Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindakoa (I. eranskina); Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak egindakoa (II. eranskina); Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak egindakoa (III. eranskina); URA Uraren Euskal Agentziak egindakoa (IV. eranskina); Etxebizitza Sailburuordetzak egindakoa (V. eranskina), eta Landaren eta Itsasertzaren Garapen Zuzendaritzan egindakoa (VI. eranskina). Txosten horiek guztiak ziurtagiri honekin batera bildura dira”.

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2013ko maiatzaren 23an agiri hau egin eta sinatu dut.

IDAZKARIA

The image shows the official seal of the Basque Government Plenary (Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordea - PLENOA) on the left. To its right is a handwritten signature in blue ink, which appears to be 'Orallo'.

Stua.: Tomás Orallo Quiroga